

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

Asteazkena, 2012ko ekainaren 27a. IX. urtea. 2.374. zenbakia. tolosaldea.hitza.info

Tolosa-Getaria trainerua, iazko denboraldia hobetu nahian

Neska arraunlariak uztailearen 7an hasiko den Euskotren Ligara begira daude, bertan hartuko baitituzte beste taldeekiko erreferentziak **02**

Sanjoanak eta gero ere, jai giroak ez du etenik

Asteasun, Amarotzen, Areson, Leaburun eta Urkizun festak ospatuko dituzte datozen egunetan; Asteasun izango dira lehenengoak bihar goizeko txupinazoarekin **06**

Tolosaldea IKT taldeko igerilariek emaitza bikainak lortu dituzte

Asteburuan, Tolosako Usabal kiroldegian, infantilek aurtengo txapelketa nagusia jokatu dute, Euskal Herriko onenekin lehiatuz **03**



→ **Pinotxo pertsonaia, gertuago.** Tolosako Topic zentroak erakusketan berria jarri du: *Ni Pinotxo naiz*. Helburua Carlo Collodik idatzitako jatorrizko istorioa ezagutzera ematea da, eta horretarako, bisita antzeztuak egingo dituzte. **05**



Atzo 15 gazte iritsi ziren; irudian haurrak eta beren familiak. I. TERRADILLOS

Iritsi dira 20 neska-mutil sahararrak Tolosaldera

Herenegun izan zen lehen urduritasun eguna, lehen bost haurrak iritsi zirenean; atzo ailegatu ziren gainontzekoak uda pasatzeko **07**

Haziak



Bioaniztasunetik

Jon Ander Galarraga

Biologoa

Bizidunen helburu nagusia da ugaltzea, hau betetzeko energia asko ipintzen dute, eta bizidun bati gerta dakioken txarrena, ugaldut gabe hiltzea da. Ez da harrizkoa, beraz, zenbait ugaltze jokabide konplexuak izatea.

Animalien kasuan jokabide dibertigarriagoak topatzen ditugun arren, landareen munduan ere ugaltzea ez da ahuntzaren gaurdiko ez-tula. Landareek badute meritu galanta, izan ere, ez dira mugitzen eta ezin dituzte kumetxoak leku hobeto batera garraiatu.

Zu eta ni bezalako animalioek enbrioi txiki batetik jaiotzen gara. Hazi-dun landareetan ere antzekoa gertatzen da; hazidunak diot, hazirik gabekoak badaudelako. Landareak urte ederra izan badu, loreak ekoiztu baditu eta lore hauek ernaltzen badira, haziak sortuko ditu. Landare ugariak betetako eremu bateko landare ama bat bagara, eta gure hazia sortzen badugu, ez da ona eremuan bertan gure kumetxoak haztea. Izan ere, inguruan landare handiak daude eta argi gutxi iritsiko zaie. Komeni da haziak ahal den urrunen eramatea. Baina, nola eremango dugu kumea leku hobe batera, ez badugu mugitzeko ahalmenik? Alternatiba oso ona energia berriztagarriak erabiltzea da, adibidez haizea. Horretarako haziak hegan egiteko egituraren bat behar dute; adibide polita astigarren hazi hegalariek dira. Haizearen bidez, modu eraginkorrean hazia beste eremu batera joango da. Hala ere, hau ez da sendabide perfektua, izan ere, haizeak

leku okerrago batera eraman dezake hazia. Baina, antzerkigile alegiar batek idatzi zuen moduan: «Arrixka la portuna».

Beste era bat haziak jaurtitzeko da. Haziaren atzeko aldean ura metatuz puxika moduko bat sortzen da eta lehertzean ur zorrotada batek hazia urrutira jaurtikitzen du.

Haziak oso urrun bidaltzeko modu on bat, mugitzen den bizidun baten zerbitzuak kontratatzea da: animaliak. Nola konbentzitu animalia bat, hazia beste eremu batera eramateko? Janari gozosa eskainiz. Ongi etorriak fruituen sorrerara. Landareak elikagai gozo eta zukutsua eskaintzen dio animaliarri, fruitua. Animalia gose da eta jan egiten du, barruan dituen haziekin kasurik egin gabe. Haziak animalien digestio aparatua igarotzen dute, eta gorotzen bidez beste leku batean agertzen dira, gainera ongari eta guzti! Landare fruitudun eta animalia batzuen harreman hau hain da estua, non zenbait hazi ezin baitira ernatu, animalia baten digestio aparatua igarotzen ez badute.

Baina ez dago beti fruitua ekoiztu beharrik animalien zerbitzuak kontratatzeko, animaliarri ezer eskaini gabe ere, lor baitituzkegu bere garraio zerbitzuak. Menditik bueltan gatzela ez al zaizkigu gure artilezko galtzerdietan hainbat zuhaisken haziak itsastan? Hazi hauek ez dute fruiturik, baina doako garraio sistema asmatu dute animalien ileetan itsatsiz. Kasu honetan ile-dun animaliak behar dituzte, ugaztunak.

Zer gertatuko litzazieke landare hoi haziak ugaztun ile-dunak mundutik desagertuko balira? Zeinen estua den bizitzaren harria!

Ikusten duzuen bezala, landareak ez dira geldirik dauden bizidun aspergarriak, badute nolabaiteko maltzurkeria. Maltzurkeria gutxi duena www.bioaniztasunetik.com web orria da, guztiz doan, jakituria mordoa eskaintzen baitu.

Gainera, zuen zalantzak bioaniztasunetik@hotmail.com helbidera idatziz argitzen ditu. Jarraitu beti bezala idazten, uda badator, eta bada zer ikusi etxetik bi pausora.



Portugaleten jokatuko dute aurtengo lehen estropada puntuagarria. HITZA

Uztailaren 7ra begira dago Tolosa-Getaria trainerua, «erreferentziak hartzeko»

Iaz Euskotren Ligako txapel-dunak izan zirenez, aurtengo ez dute sailkapen estropada jokatu beharko

Iztea Urkizu

Datorren uztailaren 7an hasiko da, emakumezkoen Euskotren Liga, Portugaleten (Bizkaia), eta Tolosa-Getaria traineruko arraunlariak estropada horri begira daude, gainerako taldeekiko erreferentziak hartzeko.

Iazko denboraldi bikainaren ondoren, Euskotren Ligako postua ziurtatua izan du aurtengo taldeak, eta beraz, ez dute sailkapen estropadarik jokatu beharko; hain zuzen ere, sailkapen estropadak hiru traineru onenekin

lehiatuko dira neska tolosarrak eta getariarrak, udako estropadetan.

Taldeekideei dagokienez, zenbait arraunlarik taldea utzi duten arren, TAKeo nahiz Getariako emakume gazte batzuk hasi dira aurtengo traineruan, eta azkenekoan lortu dute taldea osatzea.

Ioana Alijosten arraunlari tolosarrak azaldu duenez, «aurtengo neguan lehorrean lan handia egin dugu: gimnasioan, ergometroan, korrika...». Tolosarrei eta getariarrei beste urte batzuetan baino gehiago kosta zaie elkar-tzea, ikasketak, lana eta bestelakoak medio. «Trainerilletan hasi arte ez gara getariarrek elkar-tu, eta iaz baino gutxiago aritu gara uretan elkarrekin», dio Alijostenek.

Euskotren Ligako postua aurtengo denboraldiaz geroztik ziurtatuta izateak eragina izan du horretan, arraunlarien ustez: «Sailkapenaren presio hori ez dugu sentitu, eta uretako lana iaz baino beranduago hasi dugu aurtengoan. Garai honetarako zailduago ginen iaz».

Horrela beraz, uztailaren 7ko estropada mugari moduko bat izango da eurentzat: «Bertan elkartuko gara guztiok, eta erreferentziak hartzeko estropada izango da Portugaletekoa; aurtengo erroketarako geure burua neurtzeko modua izango da».

Alijostenek Pasai Donibaneko emakumeek egindako presta-

kuntza lana nabarmendu du, eta Galiziarrek ere adi egon beharko dutela uste du. Uztailaren 7a, beraz, datozen estropadetak erreferentziak hartzeko eguna izango da.

Bide beretik, Tolosa-Getaria traineruaren lorpenak, TAKeo gaztetxoentzat ere erreferentzia izango dira. Pasa den igandean, San Joan eguneko estropadak izan ziren, eta Getaria eta Tolosaren arteko lagun arteko lehiak gain, Tolosaldeko Arraun Klubeko harrobiko gaztetxoek bateletako denboraldiari amaiera eman zioten.

Arraun klubak, harrobiko ki-deek egiten duten lana nabarmendu nahi izan du: «Hiru kategoriatan lehiatzen dira, eta bakoi-tzeak batel bat baino gehiagorekin». Gainera, «hutsaren truke eta arraunerako zale-tasunari esker» TAKeo duen lan taldeari ere eskerrak eman nahi izan dizkiote klubeko arduradunek.

Iazko denboraldia iruditzen

2011ko uda gogoangarria izan zen Tolosa-Getariako emakumeentzat, besteak beste, Euskotren Liga irabazi baitzuten.

Pasa den ostiralean, iazko denboraldiko irudiak biltzen dituen DVDa aurkeztu duten Topic zentroko aretoan. Entrenamenduak, testigantzak, eta hainbat uen hunkigarri ikusteko aukera eskaini zuen proiektuak.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Iragarki laburrak

ALOKAGAI

■ Oporretarako apartamentua. Oporretarako apartamentua alokagai, Peñiskolan. 7 pertsonentzat egokitutako etxea da. Hondartza aurrean dago. 2 balkoi, 2 igogailu, 2 igerileku, aire egokitua eta parking-a dauka. Interesatuak deitu 696602527 telefono zenbakira.

Tolosaldea, igeriketaren puntan

Eskualdeko taldeko infantil mailakoek Euskal Herriko Txapelketa dute, asteburuan, Usabalen

Imanol Garcia Landa

Asteburu honetan, Tolosako Usabal kiroldegiko igerilekuan, Nafarroa, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako infantil mailako igerilari hoberenak elkartuko dira Euskal Herriko Txapelketa parte hartzeko asmoz. 12 eta 14 urte arteko neskek eta 13 eta 16 urte arteko mutilak izango dira lehiak.

Irun-Hondarribiko Bidasoa, Gasteizko Judizmendi, Donostia-ko Fortuna, Barakaldo, Oarsoalde, Galdakao eta Tolosaldea IKT eskualdeko taldea, besteak beste, izango dira Usabalen, bertako urak astinduz dominak irabazi eta txapelketa nagusietarako markak lortzeko gogo biziz. Txapelketa larunbatean eta igandean izango da, goizez, 10:30ean hasita, eta arratsaldez, 17:00etan hasita. Txapelketa ikusi nahi duenak sarrera dohain izango du.

Tolosaldea IKTko infantil taldea Gipuzkoako Txapelketa emaitza bikainak lortzeko dator eta «lusio handiz» parte hartuko dute etxean egingo den txapelketa. Igerilari guztiak beren markak hobetuta, domina ugari poltsikoratuta eta Bartzelonan egingo den Espainiako Txapelketa parte hartzeko gutxieneko marka pila motxilan hartuta itzuli ziren Tolosara.

Inoiz baino igerilari gehiago eramango du taldeak Espainiako Txapelketa aurtin, Gipuzkoako Txapelketa zain San Joan Txapelketa lortutako gutxieneko markak direla-eta. Hala, Xabier Beitia, Nerea Esandi, Ane Gonzalez, Ander Arruabarrena, Ekain Agote, Marina Etxarri, Julen Urretabizkaia eta nesken 4x100 libre erreleboak dira gutxienekoak lortu dituztenak.

San Joan Txapelketa

Orain gutxi Usabalen egin den eta Tolosaldea IKTk antolatutako duen San Joan Txapelketa Marta Alonsok irabazi du, berak lortu baitzituen maila guztien arteko puntu gehienak.

Junior eta absolutu mailako igerilariak denbora onak lortu zituzten, udako txapelketa garrantzitsuetarako emaitza onak iragartzen dituztelarik. Azpimarratzeko da Marta Alonsok 17 urteko Gipuzkoako historiako denborarik onena lortu zuela 50 metro tximeleta estilon. Imanol Ezeiza 100 metro bizkar proban, berriz, aurtengo lehenengo gu-



Gipuzkoako txapelketa parte hartu zuten igerilariak; goian, alebin mailakoak, eta, behean, eskolartekoak. HITZA

txienekoa lortzeko ehuneko gutxietara geratu zen.

Bestalde, San Joan Txapelketa baliatuz, Tolosaldea IKT eskolako igerilari txikiak, aurreko urteetan baino parte hartze handiagoarekin, ikasturte honetan izan duten «aurrerakuntza handiaren erakustaldia» eman zuten. Taldeko eskola «irakasteko duen kalitate eta estilo onagatik oso famatu» dela azaldu dute Tolosaldea IKT-tik. «Txapelkun txiki hauek eman zuten erakustaldia da horren erakusgarri», gaineratu dute.

Eskolartekoak eta alebinak

Tolosaldea IKT taldeko bederatzita igerilariak parte hartu zuten Euskal Herriko Eskolarteko Jokoetan, guztiek Gipuzkoako selezioa ordezkatzu. Gehienentzako denboraldiko txapelketarik garrantzitsuenaren zena eta Gipuzkoako Txapelketa lorturiko markak berrir hobetzea lortu zuten.

Alex Perez 200 metro bular frogan, Ander Arruabarrena 1.500 metro librean, Josu Molinero 100 metro estilon eta Ekain Agote 100 metro tximeleta eta 100 metro libre probetan, Euskadiko txapeldun izan ziren. Arruabarrena eta Agotek beste urrezko bi domina lortu zituzten, erreleboetan ere aritu ziren eta.

Leire Erbiti brontzeko bi do-

minekin, Aitor Arruabarrena zilarrezko batekin eta Jon Urdangarin hirugarren eta laugarren postuekin izan ziren podiuma zapaldu zuten beste hiru igerilariak.

Kepa Oartzunek seigarren postu bat lortu zuen, eta zoritzarreko kanporatzea ere izan zuen, hurrengo urteetako etorkizun handiko igerilari izango dela erakutsiz. Unai Iribarrek balio handia duen laugarren postua lortu zuen 200 metro estilon, aurreko egunetan sukarrarekin egon zela kontuan harturik.

Gipuzkoako Eskolarteko Txapelketa, berriz, taldeko bederatzita mutil eta neska bat izan ziren. Ander Arruabarrenak Espainiako Txapelketarako gutxienekoak 400 krol, 200 bizkar eta 100 bizkar probetan lortu zuen. Gainera emaitza hauei alde aurretik 400 estilo proban zuen gutxieneko gehitu behar zaie. Ekain Agotek 100 bizkar eta 100 tximeletako probatoko gutxienekoak lortu zuten. Biek urrezko domina lortu zuten parte hartutako bi probetan.

Alex Perez izan zen bere bi probak irabazi zituen beste igerilari. 100 bular (Espainiako Txapelketarako gutxienekotik segundo bi domina batera geratu zelarik) eta 200 bular estilon. Josu Molinero 100 eta 200 estilon atera

zen, urrezko eta brontzeko domina lortuz. Kepa Oartzunek bi zilarrezko domina lortu zituen 200 eta 100 libre estilon. Jon Urdangarin 100 eta 200 bizkar estilon atera zen eta bietan merezitako brontzeko dominak lortu zituen. Aitor Arruabarrenak 400 estilo proba zailean zilarrezko domina eskuratu zuen. Unai Iribar, berriz, bi domina lortzeko ehuneko gutxietara geratu zuen, baina, azkenik, merituzko bi laugarren postuekin konformatu behar izan zuen. Aipamen berezia merezi du Leire Erbiti bi zilarrezko domina lortu zituela 200 bizkar eta 800 libre estilon. Horrez gain, mutilek 4x100 estilo proba irabazi zuten.

Taldeko alebin mailakoek Gipuzkoako Igerilari Osoa txapelketa parte hartu zuten. Txapelketa honetan lehenengo aldiz aritu ziren Maria Martin, Olatz Garmendia, Claudia Herrero, Aritz Arrizabalaga, Julen Bengoa, Eneko Barriola, Asier Mujika eta Unai Arruabarrenak. Pablo Urangak, Beñat Urruzolak eta Iñaki Beitia, berriz, bigarren parte izan hartzea zuten. Pablo Uranga eta Unai Arruabarrenak, 2000 eta 2001eko txapeldunak izan ziren, «eratzasun handiz». Beñat Urruzola eta Iñaki Beitia, berriz, 2000. urteko hirugarren eta laugarren postuan geratu ziren.

2013ko udalaren egutegiaren lehiaketarako gaia 'Argiak eta itzalak' da

Tolosagasa eta Tolargik antolatzen duten lehiaketarako argazkiak aurkezteko epea irailaren 7a arte da

I. Garcia Landa Tolosa

Tolosako Udalaren 2013ko egutegi-argazki lehiaketa parte hartu nahi duenak irailaren 7a arte du aukera bere lanak aurkezteko. Aukeratutako gaia *Argiak eta itzalak* da. Tolosagasa eta Tolargik antolatzen dute eta argazkiak beren bulegoetara eraman behar dira, paperean (gutxienez 20x30 zentimetrokoak) edo formatu digitalean (gutxienez 4 mb-ekoak, jpg formatuan).

Hamahiru sari banatuko dira. Sari bereziak urtebeteko gasa eta argindarra dohain jasoko du, eta beste 12 sari izango dira, hauetatik seik urtebeteko gasa dohain jasoko dute, eta besteek urtebeteko argindarra. Hamabi horietatik bat publikoak aukeratutakoa izango da. Aukeraketa hori boto bidez izango da, epaimahaiak aurretik aukeratutako 40 argazki onenen erakusketan. Lehiaketaren erabaki eguna urriaren 11n izango da.

Akordeoi ikasleen kontzertua, ikasturteari bukaera emateko

Tolosako musika eskolako ikasleek bertako aretoan egingo dute emanaldia, gaur, 19:30ean hasita

I. Garcia Landa Tolosa

Tolosako musika eskolako akordeoi ikasleek kontzertua emango dute, gaur, eskolaren areto nagusian, ikasturteari amaiera emateko. 19:30ean hasiko da eta Koldo Tarragona izango da zuzendaria. Hainbat obra joko dituzte, besteak beste, Hayden-en *Jostailuen sinfonia* (perkusioiko ikasleekin), *Pantera Arrosa*, *Bibrafono bantzeneko balada* eta *Weather Report* taldearen *Smoking on the water*.

Bihar emanaldi bera egingo dute, 17:00etan, Tolosako Uzturte gerontologikoan.

Gutuna

Denak du bigarren funtzioa

Amonak ez dio *hondakin organiko*a deitzen platano azalari. Txerrijana esaten dio. Baserrira paper bila etorri eta gero txatarrian saltzen zuen Euxebiori buruzko hamaika istorio ere kontatu izan dizkit. Eta zenbat gustatzen ote zitzaion Marisak esnea jasotzeko erabiltzen zuen botila! Sarritan aipatzen du amonak esnea banatzen ari-tzen zeneko garaia...

«Den denak bigarren funtzioa zuen», esaten amaitzen du beti. Ohartu gabe gaur egun puri-purrian dagoen hondakinen kudea-keta erakutsi izan dit amonak baserrian, eta era berean, baserriarrok gaikako bilketan asko lagun dezakegula pentsarazi izan dit.

Tolosaldeko Landa Garapeneko lagunak eskuartean duten proiektu baten berri eman didatenean, erabat konbentzitu naiz. Gaikako bilketa lor dezakegu eta baserriarrok lan horretan asko lagun dezakegu: baserriarrok herrietako hondakin organikoak gure lurretan konposta egiteko erabil dezakegu. Ez dago zertan erabilgarria dena zabortegi batera bota, edo erre, edo leku guztietan konpostaje planta bat egin.

«Lurretik ateratzen dena, lurrrari bueltatzen diogu», esan didate lagunak. Eta egia da. Eurriak bere zikloa duen bezala, hondakin organikoak ere badu berea, eta lurtean ongarri gisa ixten du ziklo hori. Herriarrentzako onuragarria izango litzateke eta baserriarrentzako ere

bai. Konposta egingo bagenu, ez genuke zertan ongarri kimikorik erabili eta lurra behar dituen elementu guztiak eskuratu lituzke. Ondorioz, abereek belar hobea izango lukete eta herriarrek jateko barazki naturalagoa.

Horrelako funtzionamendua Austriar badutela esan didate lagunak. Han hala egiten badute, hemen zergatik ezingo dugu egin? Gainera, zabortegietara *hondakin* gutxiago bidaliko litzateke. *Hondakin* horiek erre beharrean, denontzako onuragarria izango den bigarren funtzio bat emango genieke.

Gainera, mundu bat eta bakarra dugu. Ezin dugu sortzen dugun zaborra alfonbra azpira bota edo erre, birrikak itxiko zaizkigulako eta alfonbrearen estropezu egingo dugulako. Sortzen duguna erabili ondoren ere, guretzako erabilgarria izan behar da. Duguna zaintzen ez badugu, inork ezingo gaitu atera zaborrez jositako edo keaz belzutako mundu batetik. Alternatibak badaude eta baserriarrok ere asko lagun dezakegu.

■ **Itziar Arkonada**. EHNEko kidea.



→ Laburrak

Etxean konposta egiteko izena eman behar da

IKAZTEGIETA » Udalak herritarrek etxean konposta egitera animatu nahi ditu. Autokonposta egin nahi duenak, nahikoa du etxean lur zati bat edukitzea. Ikastaroa eskainiko zaio, eta ostean konpostagailua emango du etxera konposta egiten hasteko. Taldea osatzen denean zehaztuko da ikastaroren eguna. Izena hilaren 29a, ostirala, baino lehen eman behar da udaletxean.

Jaietako liburuxka eta kartela egiteko aukera

IBARRA » Festetako kartela eta liburuxka egiteko aukera zabaldu du Ibarrako Jai Batzordeak. Baldintza bakarra jarri dute, batzordearentzat kostua zero eurokoa izatea. Diseinuaz gain, inprenta gastuak eta publizitatearen kudeaketa bere gain hartu beharko ditu kartela eta liburuxka egiten dituenak. Interea dutenek, udalean eman beharko dute izena. Azken eguna ostirala izango da.

Adin txikiko zentroaren inguruko bilera, bihar

ZIZURKIL » Adin txikiko zentroaren gaia jorratzeko bilera izango da, bihar, 18:00etan, pleno aretoan. Udal ordezkariak gain Gipuzkoako Foru Aldundiko Ander Rodriguez eta Jon Lasa kideak ere izango dira. Gaiaren inguruko interesa duen edonork bertaratzeko aukera izango du.

Jaietako bazkari, afari eta hamaiketako txartelak prest daude

Eneritz Maiz Alegia

Alegiako festa batzordea buru belarri ari da ate joka dauden herritako festak antolatzen. Hori dela eta, festetan izaten diren haurren bazkarian, herri afarian edota erretiratuena hamaiketakoan parte hartu nahi dutenek txartelak prest dituzte.

Umeen herri bazkarirako txartelak eskuragai daude, kultur etxean. Haur bakoitzak bost euro ordaindu beharko du, eta bazkaria herriko plazan izango da, 14:00etan. Bazkaria, uztailearen 16an, astelehenean, izango da. Makarroiak eta izozkia izango da haurren menua. Txartelak, uztailearen 10a, asteartea, bitarte egongo dira salgai.

Egun berean, hau da, Karmen egunean, erretiratueta hamaiketako eskainiko diete, herriko plazan, 11:00etan. Bertan parte hartzeko, izena eman beharko da erretiratuena elkartean edota kultur etxean. Epea, uztailearen 10ean bukatuko da.

Urtero bezala, herri afaria ere antolatu dute. Afaria, uztailearen 14ean, larunbatean, izango da, 21:00etan. Azken bi urteetan bezala, sagardotegi menua izango da: bakailao tortilla, bakailaoa pipar berdeekin, txuleta, gazta, irasagarra eta intxaurrek. Txartelak 28 euroko balio du, eta salgai egongo dira Jubilatuko, Eizmendeko eta Hilario-Berri tabernetan eta kultur etxean. Uztailearen 8a izango da erosteko azken eguna.

Ameztoyren bi artelanen kopia lapurtu dituzte

Erredakzioa Amasa-Villabona

Amasa-Villabonako Udalak jakinarazi du, kalean zeuden Vicente Ameztoy margolariaren bi artelanen kopia lapurtu dituztela. Kopia kiroldegiko eraikinean eta herriko Berdura plazan zeuden. Udalak azaldu duenez, «oro har, Vicente Ameztoyren lanarekiko eta pertsonarekiko mirespena eta errespetua erakutsi dute herrita-

rrek. Lapurreta hau kasu bakana baino ez da izan, baina gure egunkizuna herritarrei gertatutakoaren berri ematea da».

Herriaren irudia

«Bandalismo kasu hauek herriaren irudia kaltetu ez ezik, herritarrek kulturaren zein bestelako arloen ezagutza zabaltzeko duten eskubidea errotik mugatzen dute», gaineratu du udalak.

Irudia Altzo



ALTZOKO HERRITARREN IRTEERA

San Joan bezpera egunean, altzotarrak irteera egin zuten. Erretiratuak eta ez direnak, guztiak izan zuten aukera Getaria eta Oiartzun bisitatzeko. 09:00etan irten ziren Altzotik eta Getariara joan ziren. Lehenetik behin, Ameztoi txakolindegian izan ziren. Erakusketa ikusteaz gain hamaiketako

egin zuten. Ondoren, nahi zuenak, Balentziaga museoaz gozatzeko aukera izan zuten. Bazkaltzen, Oiartzungo Gurutze Berri jatetxean izan ziren. Bazkaloste eder eta patxadatsuen ostean, Altzora itzuli ziren. Bertan zain izan zuten San Joan bezperako sua, dantzariak eta zahagi ardoa. HITZA

Uda honetan **ZATOZ HITZA**ren itzalera

Egin harpidedun Ekainaren 4tik Uztailaren 27ra eta laso eguzkitako hau oparri!

Harpidedunen artean: **surf taula** (baita beste arloak)

Harpidatzeak: **902-82 02 01** harpidatze@hitza.info

hitza

Carlo Collodik sortu zuen Pinotxo pertsonaia. Jatorrizko istorioak, ordea, hamaika aldaera izan ditu urteen poderioz. Topic zentroan 'Ni Pinotxo naiz' erakusketa inauguratu dute, haragizkoa izan nahi zuen panpinaren inguruan.

Haragizkoa izan nahi zuen panpina

Itzea Urkizu

Italiako egunkari batean agertu zen lehenengoz, 1882. urtean, Pinotxo pertsonaia. Carlo Collodik *Pinotxoren abenturak* liburua argitaratu zuen, egunkarian argitaratutako kapitulu guztiak bilduta, eta horrela munduratu zen, haragi eta hezurrezkoa izan nahi zuen egurrezko panpina.

Topic zentroan, Escalante Centre Teatral taldeak sortutako *Ni Pinotxo naiz* erakusketa inauguratu berri dute. Antolatzaileen arabera, Collodik XIX. mendean idatzi zuen jatorrizko istoriora hurbiltzea da erakusketaren helburuetako bat.

Ume berezia da Pinotxo, egurrezko txotxongiloa delako, eta bere ametsa hezur eta azalezko ume bat izatea da, modu horretara, gizartearen integratuago sentitzeko. «Ikuslego gaztea identifikatua sentituko da, zenbait momentutan, Pinotxok aurre egin beharko dien zenbait arazo eta erabakirekin», diote Topic-eko arduradunek.

Bide honetan, haragizkoa izan nahi zuen Pinotxo panpinaren abenturek, antzerkiaren eta artearen zenbait balore biltzen dituztela nabarmendu dute Topic zentroko arduradunek: «Gurasoekiko harremana, aniztasunak duen aberastasuna, integrazioa, norberak bere izaera bilatzea, heriotza, laguntasuna nahiz fidelitasuna biltzen ditu istorioak».

Bisita antzeztuak

Pasa den ostiralean inauguratu zuten *Ni Pinotxo naiz* erakusketa, eta datorren irailaren 23ra bitarte ikusgai izango da, Topic zentro-



Erakusketan, hainbat koadro koloretsuk Pinotxoren istorioko zenbait pasarte irudikatzen dituzte. I. URKIZU

an, 11:00etatik 14:00etara, eta 16:00etatik 20:00etara.

Erakusketa berriak, ordea, badu berezitasunik. Besteak beste, Escalante Centre Teatralen eskutik, bisita antzeztuez gozatu ahal izango dute bisitariek. Ostiralean eta larunbatetan izango dira bisita berezi hauek, eta bi euroko prezioa izango dute. Antzerkiak lagundutako bisitaz gain, museorako sarrera eskuratu nahi dutenek, berriz, 4 euro ordaindu beharko dute, haurren kasuan, eta 5 euro helduen kasuan.

Topic zentroak asteburuetan

ezarritako bisita antzeztu hauez gain, beste egun eta ordu batzuetan erakusketa antzerkiak lagunduta ikusteko aukera ere bada. Horretarako, zentroarekin harremanetan jarri beharko da aurretik, eta taldeek 30 euro ordaindu beharko dute, museoko sarreraz gain.

Aipatzekoa da, *Ni Pinotxo naiz* erakusketako bisita antzeztuetan, antzezleak testua bisitariaren neurri moldatuko duela, ikusleek erakusketaz ahalik eta gehien gozatzeko.

● tolosa@hitza.info



Pertsonaiaren jatorrizko bertsiora hurbiltzea da erakusketaren helburuetako bat. I. URKIZU



Pinotxo pertsonaia 1882an sortu zen. I. URKIZU

Sanjoanen lekukoa San Pedro jaiek hartuko dute

Asteasun, Amartzon, Areson, Leaburun eta Urkizun jai giroan igaroko dituzte ondorengo egunak

Asier Imaz

Ekainaren 29an, etzi, San Pedro eguna ospatzen dute Tolosaldeko eta Leitzaldeko hainbat herri eta auzok. Areson, Asteasun, Amartzon, Leaburun eta Urkizun jai giroa nagusituko da ondorengo egunetan.

Goiztiarrenak asteasuarrak izango dira, suzuria bihar botako baitute zerura; santua esnatzeko asmoz edo. Gainontzeko lekue-

tan, jai San Pedro egunean hasiko da. Areson herritarrei kalera irtetea eskatu die Lagun Arteakok, Areso alaitzeko denen parte hartzea garrantzitsua izango delako. Leaburutik, festetako egunetan, marrazki lehiaketako lanak herriko ostatuan egongo direla jakinarazi nahi izan dute. Asteasuko alkateak, Maria Pilar Legarrak, herritarrei jaiak lasaitasunez gozatzeko eskatu die, «modu txukun batean».

Tolosaren kasuan, jaiek etenik ez dutela dirudi. Sanjoanak amaitu berrikan, bi auzok hartuko dute festaren lekukoa. Egitarau oparua antolatuta dute gainera, Amartzon eta Urkizun. Irudimenak ez du mugarik, eta hori argi utzi dute auzotar hauek.



laz bezala, aruten ere zezentxoak eta poneyak egongo dira Asteasuko jaietan. MAIER UGARTEMENDIA

↓ Sanpedroak, egitarauak

ARESO

EKAINAK 29, ETZI

- **18:00etan.** Herriko eskea egingo da. San Pedroko meza-oren ordua zehazteko dago.
- **21:00etan.** Lagun Artekoen afaria Pake Toki elkartearen.

EKAINAK 30, LARUNBATA

- **09:00etan.** Lagun Artekoen gosaria Pake Toki Elkartearen.
- **10:00etan.** Baserrietako eskea.
- **18:30ean.** Musika plazan, Irati eta Leire trikitilarien eskutik.
- **21:30ean.** Herri afaria Pake Toki elkartearen. Txartelak Sastinea tabernan daude salgai.
- **23:30ean.** Musika Irati eta Leireren eskutik.

ASTEASU

EKAINAK 28, BIHAR

- **10:00etan.** Jaien hasierako haurren txupinazoa.
- **Ondoren.** Haurren krosa eta marrazki lehiaketa.
- **12:00etatik 14:00etara.** Haur parkea frontoian.
- **14:00etan.** Haurren arteko bazkaria plazan.
- **15:00etatik 17:30era.** Haur parkea frontoian.
- **18:00etan.** Zezen txiki eta poneyak.
- **18:00etan.** Asteasuko Gazte Asanbladak antolatuta Asteasuko Frontenis Txapelketaren banakako finala.
- **19:00etan.** Asteasuko Aitzondo Txirindulari Elkarteak antolatuta, Asteasuko Pala Txapelketaren finala.
- **20:30ean.** Sorginaren jaitsiera. Txupinazoa Nazioarteko Emakumeen Eguna ospatzeko bultzada eman zuen Asteasuko taldeak botako du. Ondoren, kalejira.
- **22:30ean.** Bertso saioa, Maialen Lujanbio, Andoni Ega-

ña, Amets Arzallus eta Jon Maia. Gai jartzailea, Amaia Agirre.

- **Ondoren.** Musika plazan Gu-gaz taldearekin.

EKAINAK 29, ETZI

- **10:00etan.** Diana.
- **11:00etan.** Meza Nagusia.
- **Ondoren.** Elizmendirin, haur abesbatza, hamaiketako eta soka dantza. Goiza amaitzeko, Asteasuko Pilota Eskolako Txapelketaren finalak.
- **18:00etan.** Asteasuko eskolak eskainita, Musika Jaialdian plazan. Trikitilariak, panderojoiak, txalapartariak eta txistulariak egongo dira.
- **19:00etan.** Herriko musika-rien kalejira.
- **21:30ean.** Herri afaria plazan.
- **Ondoren.** Musika Laket taldearekin.

EKAINAK 30, LARUNBATA

- **10:30ean.** Auzoen arteko Futbol Txapelketa.
- **11:00etan.** Meza.
- **Ondoren.** Aitzondo Elkarteak herriko jubilatuei eskaintzen dien hamaiketako.
- **13:00etan.** Herri kirolak. Irazu eta Mugerza II.a aizkolariak, eta Aimar Irigoien eta Izeta II.a harri jasotzaileak.
- **14:30ean.** Jubilatuen bazkaria frontoian, Xapre eta Zaharra trikitilarietara, eta Millan Telleria eta Xabier Zeberio bertsolariekin.
- **14:30ean.** Kuadrillen arteko bazkaria plazan.
- **18:30ean.** Kuadrillen arteko jokoak.
- **Ondoren.** Rockalean taldea eta poteoa.
- **00:00etan.** Musika kontzertua Nahixan taldearekin.
- **Ondoren.** DJ Jon.

UZTAILAK 1, IGANDEA

- **11:00etan.** Pilota Jaialdia.

- **Ondoren.** Patata tortilla lehiaketa eta sagardo dastatzea, plazan.

- **18:00etan.** Herri kirolak Ibargaingo soroan: Asteasuko taldeen arteko lehia.

- **Ondoren.** Arrabots taldearekin musika eta dantza gidatua.

AMAROTZ

EKAINAK 29, ETZI

- **16:00etan.** Jaien hasiera, suziri eta buruhandiek.
- **16:30ean.** Haurrentzako jolasak parkean eta festa gunean.
- **18:00etan.** Beti Gazteak lokaletan karta jokoen finala: eskoba, seiko, txintxon eta punttuan.
- **18:30ean.** Txokolate jatea eta Sambhu-ren *Kataklown* antzerki emanaldia.
- **20:00etan.** Tolosako Musika Bandaren kontzertua.
- **20:30ean.** Trikitikantu poteoa.
- **21:30ean.** Mozorro gaua: auzo afaria eta DJ Bull goizaldera arte.

EKAINAK 30, LARUNBATA

- **08:00etan.** Auzo garbiketa, Txukun Txarra Zaharra taldearekin.
- **10:00etan.** Diana, Konpenezin txarangarekin.
- **10:30ean.** Haurrentzako puzgarriak eta jolasak.
- **12:00etan.** Ajoarriero lehiaketa.
- **12:30ean.** Amaroako haurren dantza emanaldia.
- **14:30ean.** Ajoarriero lehiaketako sari banaketa, eta auzo bazkaria.
- **15:30ean.** Puzgarriak eta jolasak.
- **16:00etan.** Mus txapelketa Ekaitz tabernan.
- **17:00etan.** Antzerkia Los Kikolasekin: *Sin remite*.
- **18:00etan.** Herri kirolak. Desafioa Amartz eta Tolosaren artean, ondoren, Ernesto Ezpe-

leta *Bihurri* aizkolariaren erakustaldia.

- **21:00etan.** Euskaraokea eta playback-a denentzat. Ondoren, afaria.

- **23:00etan.** Kontzertuak: Xpresso 4, Gorkore eta Bide Batez.

UZTAILAK 1, IGANDEA

- **09:30ean.** Diana, Tolosako txistularietara. Ordu berean, meza egongo da, auzoko hildakoen alde.
- **11:00etan.** Artisautza eta mirenalen erakusketa festa gunean.
- **11:30ean.** Futbol Txapelketa, 6-12 urte bitarteko neska mutilentzat.
- **12:00etan.** Erromeria festa gunean, Amaroako dantza taldekoekin.
- **14:30ean.** Auzo bazkaria Konpenezin txarangak girotuta.
- **17:00etan.** Magia ikuskizuna Diego magoa eta Jon Zabalarekin: *Magia de cerca*.
- **19:30ean.** Aurrekua.
- **20:00etan.** Sardina jatea, Ze-laia anaien musikarekin.
- **00:00etan.** Jaien amaiera, eta agurra.

LEABURU

EKAINAK 29, ETZI

- **10:30ean.** Txupinazoa, jaietako hasiera emateko.
- **11:00etan.** Meza nagusia, San Pedro elizan.
- **Ondoren.** Hamaiketako, herriko ostatuan.
- **12:00etan.** Herriko Toka Txapelketa, plazan.
- **17:00etan.** Ume jolasak.
- **Ondoren.** Txokolate jatea.
- **20:15ean.** Azken ostiraleko elkarretaratzea.
- **21:00etan.** Barrikotea eta sagardo dastatzea egongo dira, herriko plazan.
- **Ondoren.** Bertsolarien saioa,

Jokin Uranga eta Iker Zubeldia bertsolariekin.

EKAINAK 30, LARUNBATA

- **11:00etan.** Leaburuko Herri Krosa. Adinaren arabera egingo dira taldeak, eta adin taldeen arabera ibilbidea aldatuko da. 3 urtetik gorako herritar orok har dezake parte.
- **15:00etan.** Leaburuko Mus Txapelketa.
- **16:30ean.** Euskal Herriko Toka Txapelketarako sailkapen jardunaldia. Izen ematea, 16:30etik 18:00etara.
- **19:30ean.** Triki poteoa, herriko trikitilarietara.
- **20:45ean.** Andoni Otegi herriko presoroa bidaltzeko argazkia aterako dute.
- **21:00etan.** Herri afaria.
- **Ondoren.** Trikitilariak.
- **00:00etan.** DJ Danik musika jarriko du goizaldera arte.
- **03:00etan.** Parrandazaleen arteko zaku karrera.

URKIZU

EKAINAK 29, ETZI

- **11:00etan.** Meza nagusia.
- **Ondoren.** Hamaiketako.
- **14:00etan.** Bazkaria elkartearen, trikitilarietara alaiturik.
- **21:30ean.** Mus Txapelketa.

EKAINAK 30, LARUNBATA

- **14:00etan.** Umeen bazkaria elkartearen. Arratsalde osoan zehar, haur jolasak egongo dira.
- **21:00etan.** Herri afaria Alurtxiki elkartearen, trikitilarietara alaiturik.

UZTAILAK 1, IGANDEA

- **11:00etan.** Tortilla lehiaketa.
- **11:30ean.** Sagardo lehiaketa.
- **12:00etan.** Toka txapelketa.
- **18:00etan.** Ume jolasak eta bolo txapelketa.
- **Egun osoan zehar.** Trikitilariak.

Langostino Moto Festa dela eta, trafikoan hainbat mozketa izango dira

I. Terradillos Ibarra

Datorren larunbatean eta igandean, hau da, ekainaren 30ean eta uztailaren 1ean, X. Langostino Moto Festa izango da Ibarra, eta hori dela eta, trafikoan eta apartzerakoan, mozketak eta aldaketak izango dira larunbatean.

Batetik, Euskal Herria kaleko 1 eta 17 zenbakien arteko gunean ezingo da aparkatu 14:00etatik 21:00etara, eta San Bartolome kalean, kioskotik hilerria igotzeko eskaileretarako gunean, ezingo da autoa utzi egun osoan.

Bestetik, Euskal Herria kaleko 1 eta 17 zenbakien artean errepidea itxita egongo da 18:00etatik 21:00etara bitarte.

→ Laburrak

Martxelo Otamendiren hitzaldia, gaur, Aurreran

LEITZA ▶ Berria egunkaria egiten ari den Zure ziztada behar dugu kanpaina dela eta, Martxelo Otamendi izango da gaur, Leitzako Aurrera elkartearen, 19:30etik aurrera. Euskarazko hedabideak bizi duen egoera zailaren berri emango du Berria egunkariko zuzendariak. Halaber, proiektua babesteko bideak ere azalduko dizkie bertaritzen direnei.

Jai batzordearen bilera orokorra, etzi

IBARRA ▶ Festa batzordearen bilera orokorra izango da etzi, ostegunean, 19:00etan, udal-etxe batiar aretoan. Herriko talde, elkarte, eragile zein norbanako guztiei egiten zaie bertaritzeko deia.



7 eta 12 urte bitarteko 20 neska-mutil izango dira Tolosaldean. Irudian, atzo ailegatu ziren 15 gaztetxoak. ir.

Herenegun saharar errefuxiatuen kanpalekuetako bost neska-mutil ailegatu ziren, eta atzo egin zuten gainerako hamabostek; bi hilabete dituzte aurretik, eskualdean jardueraz beteriko uda igarotzeko.

Hemen dira sahararrak

Iñigo Terradillos

Euskal familiak bisitatu eta, bide batez, oporrak eskualdean igarotzera. Helburu horrekin etorri dira 20 neska-mutil sahararrak Tolosaldera. Herenegun bost iritsi ziren, eta gainerako 15 gaztetxoak, atzo.

Iraupen luze bidaia oron ondorioz nekaturik ailegatu ziren guztiak. Baina, ilusioz beterik. Izan ere, bi hilabete dituzte euren Tolosaldeko familia eta lagunekin jolasteko. Haurren zain zeuden familiek, berriz, besarkada artean, eta zoriontsu eta hunkiturik hartu zituzten.

Guztiek urduritasuna nabaritzen zitzaizkien arren, baziren lasaia izango zirenak, errepikatzaileak, alegia. 7-12 urteko 20 gaztetxo hauen artean, lau lehen aldiz irten dira euren etxeetatik, eta ho-

riek guztia arrotz zaien heinean, urduriago nabari zitzaizkien. Badiara, halaber, bosgarrena izaki, azken urtea dutenak Oporrak Bakean ekimenaren barruan. Ahalik eta gehien gozatzea izango dute helburu gazte hauek eta baita euren familiek ere.

Bada, haurrarekin lehen hartu-eman izan, Oporrak Bakean ekimeneko arduradunen eskutik opariak jaso, taldeko argazkia egin, eta euren etxeetara joan ziren. 10 haur Tolosan egongo dira, Villabonan 5, Ibarra 2, eta Alegian, Altzon eta Anoetan bana.

Uda bete izango dute neska-mutilak. Batetik, astean bitan edo hirutan jardueraren bat izango dute gainerako umeekin batera jolastu dezaten. Eta, horrez gain, noski, euren etxeetan hartu dituzten familiako kideekin batera hamaika jarduera egiteko aukera izango dute.

Egiteko horietan osasun azterketak izango dute lehentasuna, eta, beraz, lehen bi edo hiru astetan medikuarenetik pasa behar dute haurrek. Izan ere, Tolosaldean 2000. urtetik martxan den Oporrak Bakean ekimenak haur hauek uda paregabea igarotzeaz gain, osasuna eta elikadura zaintzea ere badu helburu. Eta horrekin batera, sahararrek bizi duten egoera zaila familia hartzaileek eta ingurukoek gertutik ezagutzeko ere bultzatu nahi da.

Leitzaldera, bi biki

Aljeriako Tindouf hiriarren ondoren kokaturiko errefuxiatuen kanpalekuetatik bi bisitari izango dituzte, aurretik, Leitzan. Bi neskatu biki, hain zuzen. Hauen zaintza bertako bi familia arduratuko dira. Tolosaldekoen moduan, hauek ere bi hilabeteko egonaldiaz gozatuko dute.

Irudia ▶ Gaztelu



GIRO ONA SUAREN BUELTAN

«Oso giro polita» sortu zen Gaztelun larunbatean, San Joan bezperan. Hori nabarmendu dute herritarrek. Azken urteetan egin duten moduan, Erroizpe Azpiko kirol eta kultur elkarteak bildu ziren gazteluarrak afaltzeko. Afariaren ondoren, suaren inguruan jarraitu zuen jai giroa. Garikoitz txistulariak alaitu zuen giroa, herritarrek dantzan eta saltoka egin zuten bitartean. HITZA

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarrita Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.M.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza. Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: tolosaldean.hitza.info

Zuzendariordea: Imanol Garcia Landa. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosa@bidera.eu
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info
Anoeta: 687 410 022. anoeta@hitza.info
Ibarralde: 687 410 118. ibarralde@hitza.info
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info
Leitza: 687 410 118. leitza@hitza.info

Tolosa Herria Hedabideak **BERTAKO**
SM-ko kideak: HEDABIDEAK



Galtzaundi euskara taldea



eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Armezketeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Hernialde, Irura, Larraul, Leitza, Lizartza, Orendain, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Farmaziak

GAUR

- **Tolosa.** Azpiroz, L. Amarotz auzoa, 9. Telefonoa: 943 67 51 18.
- **Arribe.** Garmendia, A. Kale Nagusia. Telefonoa: 112.
- **Irurtzun.** Gastearena, M. Amaya kalea. Telefonoa: 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Irudia **Leitza**



**SARIAREKIN
EGUN PASA**

Egun pasa polita egin zuten Leitzaiko Erleta eskolako 6. mailako ikasleek iragan astean. Pasaira eta Donostiara joan ziren, eta txalupan bueltatxo bat eman, Aquariuma bisitatu, eta hondartza izan ziren. Nafarroako Gobernuak antolatutako irrati gidoi lehiaketan lehen saria jaso zuten, eta bertan irabazitakoa baliatu zuten egun pasa egiteko. Bertso paper eta literatura lehiaketetan ere, Leire Erbiti, Oier Alzelai eta Xabat Illarregi ikasleak sarituak izan dira. HITZA

Agurrak

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

AGURRAK
943-65 56 95 tolosaldean@hitza.info

agurrak



harpidedun izateak badu saria

zozketa

1 Aisia Orio Hotela
Bi laguntzako sasoiari jartzeko zirkuitua eta bazkaria



Zatoz uda honetan gure terraza ikusgarriez gozatzera! Uztailak leian irekitzen degu. Abakando-arroz menua eta txuleta menua 18 eurotik aurrera. Plater konbinatuak, anoak, pintxoak, kopak, eta abar. Dena terrazan zerbitzatzen dugu eta prezioak krisiaren kontrakoak!

Hondartza bidea, 1 • Orio
Tel.: 943-89 44 40
www.aisiahoteles.com/orio

Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **51**

2 Mahala sorta
Bi sorta



Mahala Berri baserria
Leaburu
Tel.: 943-67 07 24


Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **52**

3 Txindokiko itzala
Hiru laguntzat bina sarrera



Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **53**

4 Donostiako Aquariuma
Bi laguntzat bina sarrera



www.aquariumss.com
Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **54**

Parte hartzeko deitu edo idatzi: **902-82 02 40 / txokoa@hitza.info** [harpidedunen kodea, izena, herria, eta zeineskaitzetan parte hartu nahi duzun garbi adierariz] Aste honetako astearte, asteazken eta ostegun goizean, nahi duzun orduan. Saridunak ostiralean argitaratuko ditugu.